

GRALak ESLEITZEKO PROZEDURA

LAN HARREMAN ETA GIZA BALIABIDEETAKO GRADUA

NEGOZIOEN KUDEAKETAKO ETA LAN HARREMAN ETA GIZA BALIABIDEETAKO GRADU BIKOITZA

UPV/EHUko GRALaren arautegiak behartzen gaitu irizpide bakarra erabiltzera fakultatean ematen diren gradu guztietan, eta GRALak esleitzeko arautegia bateratzera. Arauak dio deialdia egin behar dela GRALa egiten hasteko moduan dauden ikasle guztientzat. Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduaren eta Negozioen Kudeaketako eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu Bikoitzaren kasuan, horretarako baldintza da ikaslea GRALean matrikulatuta egotea, eta hori egin ahal izateko, berriz, beharrezkoa da matrikulatuta egotea gradua amaitzeko falta zaizkion gainerako kredituetan. Matrikulatu ondoren, eta behean zehazten den prozedurari jarraituz, matrikula egitean ikasleek GRALaren gaia hautatuko dute aukeran daudenen artean, eta gai bana eta tutore bana esleituiko zaizkie. Horretarako, ikastegiak urtean bi deialdi egingo ditu:

- Ohiko deialdia uztailean, matrikularako epe orokorrean.
- Ezohiko deialdia urrian, aurreko ikasturtean matrikulatuta egon arren ikasturte horretan lana defendatu ez duten edo suspenditu duten ikasleentzat, bai eta ikasketei berriro heldu dieten ikasleentzat ere.

Hau izango da ikasleei gaia, saila eta tutorea(k) esleitzeko prozedura:

1. GRALaren ohiko matrikulazio epea hasi baino lehen eta behar besteko aurrerapenez, Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduaren eta NK+LH eta GBko Gradu Bikoitzaren ardura duten sailek tutoreen eta gaien zerrenda bidali beharko dute Leioako LH eta GL Fakultateko idazkaritzara, bakoitzari dagokion kuota proportzionala kontuan hartuta, gradu horien ikasketa planean bakoitzak daukan pisuaren arabera. Sailek bermatuko dute bi hizkuntza ofizialetan asetzen dela lanen eskaria.
2. Matrikula prozesu orokorrean, ikasleek GRALaren gaia aukeratuko dute, ikastegian irakasten duten sailek eskainitako gaien artetik, matrikularako hitzorduaren hurrenkeran. Hitzorduen hurrenkera kalkulatu da kontuan hartuta ikasleak gainditutako irakasgaien eta kredituen kopurua eta bere espediente akademikoaren batez besteko nota, UPV/EHUko Graduako Ikasketen Gestiorako Arautegian zehazten den bezala (27. art.).
3. Sail batek bere kupoa betetzen duenean, gainerako GRALak kupoa bete ez duten sailen artean banatuko dira.
4. Sail bakoitzari esleitutako ikasleen zerrenda GRALeko koordinatzaileak emango dio sailari. Sailek izango dute, azken buruan, GRALak beren irakasleen artean banatzeko ardura.
5. GRALak irakasleei esleitzean, sailek kontuan hartu beharko dute prestakuntza dualean ari diren ikasleei enpresan daukaten tutoreak gainbegiratu behar diela GRALA.

Esan bezala, sail bakoitzari GRALen kuota proportzional bat dagokio, graduiko ikasketa planean daukan pisuaren arabera; kuota horren zenbateko totalaren barruan prestakuntza dualean dauden ikasle horien GRALak sartuko dira.

6. Aldaketarik badago tutoreen esleipenean, sailak aldaketaren berri emango die kasuan kasuko ikasleei, eta jakinaraziko die nor den tutore berria.
7. Ikaslea harremanetan jarri beharko da esleitu zaion zuzendariarekin ikasturtea hasi eta hamar egun balioduneko epean.
8. GRALean matrikulatuta egon diren eta dagokion ikasturtean defendatu ez duten ikasleak berriro matrikulatu beharko dira, gaia berriz aukeratu beharko dute eta zuzendaria esleitu zaien osterera ere, **non eta lehengo zuzendariak ez duen idatziz adierazten prest dagoela aurreko GRALa zuzentzen jarraitzeko** (ezohiko urriko matrikula). Ikasle horiek ohiko deialdian libre geratu diren gaien artean baino ezin izango dute aukeratu. Ezohiko matrikulan ikasleak ordenatzeko, espedienteko batez besteko nota hartuko da kontuan, eta berdinketa gertatzen bada, gainditutako kredituen kopurua.

**SAIL BAKOITZARI DAGOZKION GRALen EHUNEKOAK, LH eta GBko IKASKETA
PLANEAN ESKAINTZEN DITUEN IRAKASGAIEI ARABERA**

SAILA	ECTS	Ikasturte bakoitzean zuzendu beharreko GRALen ehunekoa
Konstituzio Zuzenbidea, Administrazio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia	10,5	4,10
Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila	96	37,23
Zuzenbide Publikoa eta Zientzia Historiko-juridikoak eta Pentsamendu Politikoarenak	6	2,33
Ekonomia Aplikatua I	28,5	11,04
Finantza Ekonomia I	18	6,97
Finantza Ekonomia II	18	6,97
Historia Garaikidea	9	3,48
Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa	12	4,65
Enpresen Antolakuntza	6	2,32
Gizarte Psikologia	21	8,13
Soziologia eta Gizarte Langintza	33	12,88
GRADUAN GUZTIRA	258	% 100

SAIL BAKOITZARI DAGOZKION GRALen EHUNEKOA, NK+LH eta GBko GRADU BIKOITZEKO IKASKETA PLANEAN ESLEITUTA DAUKAN IRAKASLANAREN ARABERA

NK+LH eta GBko Gradu Bikoitzean irakaslana daukaten sailak	ECTS	Ikasturte bakoitzean zuzendu beharreko GRALen ehunekoa
334-Ekonomia eta Rudeaketa	78	%24.1
333-Politika Publikoak eta Historia Ekonomikoa	30	%9.3
166-Finantza Ekonomia II	24	%7.4
90-Finantza Ekonomia I	18	%5.6
351-Filologia eta Historia	6	%1.9
103-Ingeles eta Aleman Filologia eta Itzulpengintza eta Interpretazioa	12	%3.7
54-Enpresen Antolakuntza	6	%1.9
233-Administrazio Zuzenbidea	6	%1.9
330-Zuzenbide Publikoa eta Zientzia Historiko-juridikoak eta Pentsamendu Politikoaren Historia	6	%1.9
331-Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila	78	%24.1
203- Gizarte Psikologia	21	%6.5
337-Soziologia eta Gizarte Langintza	18	%5.6
36-Ekonomia Aplikatua	12	3.7%
21-Historia Garaikidea	9	%2.8
GUZTIRA	324	324 (%100)



LAN HARREMAN

ETA GIZARTE LANGINTZA
FAKULTATEA

FACULTAD DE
RELACIONES LABORALES

Y TRABAJO SOCIAL

Bizkaiko GRALeko

Azpibatzordea

2023-02-21

EGOITZAKO GRALeko AZPIBATZORDEA

LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA FAKULTATEA